

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## 2019. urtean, nekazaritzako aseguru-poliza konbinatuak kontratatzeko, 3,6 milioi euroko laguntzen deialdia egin da

*Aseguru horien helburua da aurkako baldintza meteorologikoek eragindako errentaren galera ekonomikoa konpentsatzea*

Osteguna, 2019.eko urtarrilak 10

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentuak 3.650.000 euroko laguntzen deialdia ireki du 2019ko Nekazaritzako Aseguru Konbinatuen Planari dagozkion aseguru-polizak kontratatzeko. Deialdia [gaur argitaratu da NAOn](#), eta horren helburua da Nekazaritzako Aseguru Konbinatuen 40. Planari (2019 Plana) dagozkion nekazaritzako aseguruak harpidetzen dituzten nekazariari eta abeltzainei laguntzak ematea; aseguru horiek Nafarroako Foru Komunitateko lurraldearen barnean dauden nekazaritzako ondasunentzat izango dira.

Modu horretan, aseguru horien bitartez, ustiapenaren titularraren borondatearen kontrako gorabeherak eta gertatutako aurkako baldintza meteorologikoek eragindako galerak konpentsatu nahi dira; tartean egon daitezke kazkabarra, uholde-euriak, uholdeak, harri-erauntsia edota abereek izandako istripuak, zenbait eritasun eta ustiapenetik hildako animaliak eramatea.

Nekazaritza-sektorean diru-laguntza izan dezaketen ildoak ondorengo ustiapenetan handituz doazen estaldurak dituzten aseguruentzat izango dira: frutagintzak, estalitako baratzak, aire libreko baratzak, udazken-negu ziklokoak; laborantza belarkara estentsiboak; fruitu lehorrak; kaxondoak eta bestelako fruta-arbolak (kiwia eta elorri beltza); ardogintzarako mahatsa; olibariak; gereziak; aire libreko baratzak, udaberri-uda ziklokoak; eta segidako zikloak.

Abeltzaintzari dagokionean, honako ustiapen hauen aseguruak izango dute diru-laguntza: ugalketako eta hazkuntzako behi-hazienda; ardi-hazienda eta ahuntz-hazienda; plazako behiak; gizentzeko behiak; larreen galera bidezko konpentsazioa; balorazio genetiko altuko behi-hazienda; taldea; haragitarako hegaztiak; arrautzetarako hegaztiak; ugalketako behi-hazienda; eta txerri-hazienda.

Azkenik, ustiapen berriztagarrian eta ez berriztagarrian hildako animaliak suntsizetik eratorritako gastuak estaltzeko aseguruak ere izango dute diru-laguntza.

Diru-laguntzaren xedeko polizen kontratazioan sartuko dira 2019. urte osoan zehar eta 2020ko lehen seihilekoan egindakoak. Nekazaritzako aseguru horiek harpidetzearekin, diru-laguntzaren eskaera egintzat emango da, betiere Nekazaritza Ministerioak ezarritako harpidetza-

denboraldien barnean egiten bada.

### **Onuradunak eta diru-laguntzaren zenbatekoa**

Laguntzak honako hauek eskuratu ahal izango dituzte: aseguru-poliza kontratatzen duten eta nekazari profesionalaren baldintza duten (nekazaritzako gizarte-segurantzara kotizatuaz) nekazariak eta abeltzainak; aseguru-poliza kontratatzen duten Kooperatibetako laborantza komuneko atalek eta lehentasunezko ustiapenek; eta ustiapenean hildako animaliak suntsitzetik eratorritako gastuen estaldurari buruzko 415 lineako aseguru-poliza duten abeltzainak.

Herri Administrazioek emandako diru-laguntzen zenbatekoak ezingo ditu inola ere gainditu Europar Batasunak 2014tik 2020ko nekazaritza eta baso sektorera aplikatzeko emandako Gidalerroetan ezarritako mugak. Modu horretan, nekazaritzako eta abeltzaintzako aseguruak dagokienez, ezingo dute gainditu primaren ordainagiriaren zenbateko osoaren %65a. Ustiapenean hildako animaliak jasotzeko eta suntsitzeko aseguruak dagokienean, berriz, ustiapen bakoitzeko ezingo du gainditu primaren ordainagiriaren kostuaren %90a. Bi kasuetan, ez dira kontuan hartzen errekaratuak.